

Labirintoa

Mundu osoko kultura antzinako nahiz berrietan garrantzi handiko *sinboloa da labirintoarena, berorren zentzu erlijiozko-filosofikoarengatik.

Eraikin edo diseinu bat da labirintoa, pasabide edo ibilbide-sistema konplexuz egina: bertara sartuz gero, erdigunera iristea eta, bertatik irten nahi izanez gero, irteera aurkitzea zailtzen duten eratan ebakirik daude bideak.

Greziar mitologiatik dator labirintoaren jatorria eta horren zentzuaren funtsa. Kreta-ko labirintoa da historian zehar ezagunena, Dedalo-k eraiki zuena. Baina labirintoak aurkitzen dira antzinako Egypton, baita Italiako, Alemaniako eta Frantziako zenbait elizetako lurtzoruetan ere.



Amiens-eko katedraleko nabe nagusiko labirinto handia.

Guztitan sumatzen dira labirintoaren eginkizun eta zentzu berberak: a) Erritoko erabilera du, sarbide edo inimizazioan ibili beharreko bidea denez; b) Mugimendua eta dantza adierazten ditu; c) Erdigunera sartzea eta handik irteeta denez arazoa, bizitza osoaren sinboloa da labirintoa, hainbat probaldiren bidez norberaren erdigunera sartzea bait da gizakiaren helburua, bizitza errebelazio eta argia han aurkitzekotan.

Ik. Bidea; Sarbidapen-erritoak; Altxorra.

Lagun-hurkoa

Hurkoa soilik ere esaten da. Erlijiozko hizkeratik eta bereziki kristautasunetik datarren hitza, norbaitekin hurbiltasunezko elkartasunez kidetuta dauden gizalagun guztiak adierazteko. Odolezko edo adiskidetasu-

nezko zirkulua zabaldu egiten du lagunurkoen elkartasunak.

Testamentu Zaharrean israeldarrentzat beste israeldar guztiak eta *proselitoak ziren lagun-hurkoak. Testamentu Berriaren arabera edozein gizalagun da berez lagun-hurko: norberak zabaltzen du, egitez, bere maitasunaz eta laguntasunaz lagun-hurkoen zirkulua.

Ik. Maitasuna.

Laguntzako kongregazioak

Erljiozko-institutuak dira, beren eginkizun berezitzat gaixoak edo zaharrak zaintzea, pobreei laguntzea, umezurtzen edo baztertuen ardura izatea, etab. dutenak.

Ik. Egintza onak; Erljiozko-institutua.

Laikoa

Grezierazko Laos hitzetik dato: Herria esan nahi du. Horregatik herritarra adierazten du jatorriz laikoa hitzak.

1. Sin.: Sekularra; Mundutarra. Kristau-hizkeran kristau soila ere esaten da: hots, batetik; *erlijioaren aurrez aurre "munduan" eta bizibide "sekularrean" bizi dena; bestetik, *klerikoen aurrez aurre, eliz *ministeritzarako inolako ordenarik hartu ez duena. Laikoari dagokiona, laikal esaten da.

2. Adjektibo gisa ere erabiltzen da laiko hitza, erlijiozkoaren edo elizazkoaren aurrez aurre: irakaskuntza laikoa, botere laikoa, estatu laikoa, etab.

* * * *

*Eklesiologia tradizionalen gertatu den bereizkuntzan, ahalmen sakratua dutenen eta ez dutenen artekoan alegia, botere-gabeak dira laikoa, eta klerikoei kontrajartzen zaizkie, hots, elizabarruko boteredunei. Kristau arrunta ere esan ohi da. Arronter hitza erabili zuen Duvoisin-ek laikoa esateko.

Eklesiologia klerikalaren ondorioa da hori. Klerikoen eta laikoen arteko bereizkuntza gehienbat Eliza Katolikoan eta Ortodoxoan nabarmendu izan da; Erreformatik sortutako Elizetan eta bereziki Eliza libretan askoz txikiagoa da bereizkuntza hori. Ik. Eliza Katolikoa; Eliza Ortodoxoa; Protestantismoa; Eliza libreak.

"Jainkoaren Herri" gisa definitzen bada, berriz, Eliza --Vatikanoko II. Kontzilioak definitu zuen legez--, orduan laikoa --laos-- gertatzen dira Eliz elkartearen definizioaren abiapuntu, *bataioaren bidez bait da fededuna eliztar, eta bataiatu_guz-

tiek osotzen dute Jainkoaren Herria, eta *ministroak (*hierarkia edo kleroa) horren zerbitzutan daude.

Bataioaren bidez, ordea, fededuna (laikoa) ez da Elizaren zerbitzuren batzuren hartzaile eta horien pagatzaile hutsa. Elizako bazkide ekintsu bihurtzen da. *Elkartearen barruan bere eskubideak, bere esku-harmena eta eginkizunak dituena eta Elizaren mundu-barruko *misioan bere alor funtsezko eta espezifikoak duena. Kristoren "apaiz-, profeta eta errege-lanean" hartzen duela esku esanez adierazten du funtsean hori teologiak.

Elizaren misioaren alor guztietan du laikoak bere eginkizun espezifikoak, beraz: *Liturgian, *sakramentuetan, komunitatearen eraiketean, Ebanjelioa zabaltzean, gizarteko zerbitzuetan eta munduaganako misioan. Ez alor "profanoetan", edo politiko, kulturazko eta sozialetan bakarrik. Gainera kristau bakoitzak bere *karismak dituela aitortzen du teologiak, komunitatearen onerako bere ekarri berezia egiteko.

Dena dela, laikoen lekua, eginkizuna eta espezifikotasuna nabarmentzeak eta finkatzeak Elizaren berezko eta funtsezko dimentsioa nabarmentzera darama eklesiologia: hots, mundutartasuna eta sekulartasuna, baita *munduarentzat bidalia edo munduaren zerbitzurako izatea ere.

Laikoen elizabarruko funtsezko lekua baieztatzeak eta areagotzeak Eliza osoaren demokratizazioa ekarri behar du ondorioz: ez beraien partaidetzan bakarrik, eta bai eliz ministro edo zerbitzarien hautapenean ere.

Orain arte azaldukoaz aparte, laiko eta laikotasuna hitzak erabili ohi dira konfesiogabea eta konfesiogabezia adierazteko ere (goian aipaturiko 2. esanahia): hau da, erakunde zibilei (eskolari, gobernuari, estatuari, etab.) begira, inolako erlijiozko *fede-aitormeni edo konfessori atxekita ez daudenak dira laikoak. Laiko hitzaren erabilera horrek eduki izan duen erlijioaren kontrako adieragatik, gaur egun gehiago erabiltzen da *akonfesional (akonfesionaltasuna) edo ez-konfesional (ez-konfesionaltasuna).

Ik. Jainko-herria; Eliza, Mundua; Laizismoa.

Paulo Agirrebaltzategi

Laiko-egoera

Eliza Katolikoan eta Ortodoxoan, *laikoek edo kristau gehien-gehienek *elkarte barruan duten bizi-egoera, elizjende edo *klerikoarenetik berezia.

Laikoentzako teologia

Vatikanoko II. Kontzilioaren ondoren erabili izan duten esakunea, helduen katekesi-sistemetako bat adierazteko: horren bidez laikoentzat ikastaro espezifikoak antolatzen zituzten, kristau-heziera sakontzeko.

Esakunea ez da inola ere egokia, teologia berez *klerikoen eta *erlijiosoen zeregina dela adierazten bait du; eta ez da horrela, nahiz gure artean horien eskuetan egon ia erabat teologiaren ikasketa sistematikoa egitea eta hori irakastea.

Bestalde, kristau fededunak eta eliztarak orokorki teologiaren hartzaile soiltzat jotzen bide ditu esakune horrek, egile izan beharrean.

Ik. Teologia; Katekesia; Askapen-teologia.

Lainoa

Lurraren azalean eratzen den lainoa eta mendiak eta bazterrak inguratzen dituena, jainkozko *misterio ezkutuaren eta izugarriaren sinboloa da. Mendi-tontorraren sinbolotasunarekin lotuta doa sarritan.

Ik. Izugarria, zer; Mestia.

Laikotza

1. Elizabarruko bizieretako bat, *klerikotzarekin eta erlijioso-bizierarekin batera. Laikoen bizi-egoera da, hain zuzen.

2. Eliz *elkarte osoko edo elkarte jakin bateko laikoen multzoa.

Ik. Laikoa; Erlijiosoa.

Laizismoa

Frantziako III. errepublikaren lehen urtetan asmatu zuten laizismo hitz hori, nahiz oinarriak gorago dauzkan, XVIII. mendean. Orduan hasi zen alabaina filosofo deitu zuten idazle zenbait (Diderot, Voltaire, eta abar) esaten, berrikusi eta birmoldatu behar lirakeela Elizaren eta estatuen ohiko harremanak. Elizaren behargabe boterearen menpetik gizartearen eta gizaki bakoitzaren askatzeko ordua etorria omen zen.

Dena dela, 1905ean gertatu zen Frantziako estatuen eta Elizaren artean 1801az gero finkatua zegoen *konkordatuaren haustura: Eliza bakar eta berezi baten --hots Eliza Katolikoaren-- zerbitzari ez daitekela koan aburu askotako herritarrek elkarganatzten dituen estatua, Eliza berezi horrekiko loturak oro hausten dituen estatua, zinez "laiko" bilakatzen da.

Bereizkuntz Legearen ondotik (Loi de Séparation) Elizako kargudunen, hau da,